

Famili bizitzaren eta gizarte bizitzaren arteko kontziliazioa

Teresa del Valle
Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Antropologiako Katedraduna

Gipuzkoa 2020
Hausnarketa Estrategikoaren Prozesua

2001eko uztaila

Baloreen Filosofia eta Gizarte Antropologia Departamentua
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Tolosa Etorbidea, 70
2009 Donostia
Telefonoa: 943 01 82 53
E mail: yvpvmut@sf.ehu.es

AURKIBIDEA

Sarrera

I. Artikulaziorako oinarriak, eragiten dituen aldean arabera.....

1. Gizonezkoen kasuan
2. Emakumezkoen kasuan.....
 - Jardunaldi bikoitza
 - Amatasunaren esanguraren berregite bat

II. Zainketaren konplexutasuna eta honek Estatuarekin duen lotura

1. Zainketak bere baitan hartzen duena.....
2. Jaiotza-tasaren igoera, erreproduzio geroratua eta honen ondorioak.....
3. Genero-sistemak eta biztanleria zahartzea: beharrak, nahiak eta erantzunen plangintza.....

III. Proposamen orokorrak politika publiko zehatzak bideratzeko

1. Etxe esparruko erreproduzio lanari entitate ematea
2. Hainbat zainketa eginkizunen eta berauen espazioen benetako kuestionamendua.....
3. Denboraren antolamendua aztertzea, honetan jasoz ekonomia, administrazioa, hezkuntza eta aisia.....
4. Lan aukerak erraztea gazteei eta famili arduren eraginez tarteka aritu diren emakumei
5. Gizonen eta emakumezkoen identitateen aniztasuna aitortzea.....
6. Kolektibo zibilen garapena bultzatzea, erretirotik aurrera.....
7. Joera, balore eta kuestionamenduen premiatasuna sumatzea

Bibliografia 25

SARRERA

Famili bizitza eta gizarte dinamika zabalagoa elkarrekin artikulatzeko moduari erantzutea erronka handia dugu, eta analisi lanabesak behar ditugu horretarako, hain zuzen famili bizitza eta gizarte dinamika garatzen diren eremuen arteko kontzeptu-bereizketa bultzatzen zuten tresnez bestelako batzuk. Oso ohiko kontua da pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketara jotzea, bakoitzari gainera prestigio maila bat emanaz. Izan ere, publikoa zabala da, bere barnean biltzen zaitu, eta uneoro aldaketak jasaten ditu, baina pribatua lotuago dago etxe eta famili eremuari, eta beraz, emakumeei lotuago gizona koei baino. Publikoarekin lotutako jarduerak eta espazioak gehiago baloratzen ditugu pribatuarekin lotutakoak baino; horrenbestez, etxe eta famili arlo edo eremuak horren eragina pairatzen du. Artikulazioaren bila jarduteko hainbat alderdi definitu behar da, zeren eta alderdi horiek, gizarte bizitzan klabeak izanik, errealitate zabalagoen sintesia ere izan baitaitezke. Horretarako aukera ematen duten tresna kontzeptualak erabili behar dira, esaterako kritika feministaren berezko genero ikuspegitik datozenak.

Bereizketa baztertzailak zerikusi handia dute boterea modu arbitrarioan zertzen den desberdintasun sistemekin; boterea horrela erabiliz, biztanleriaren sektore handiak bazterrean geratzen dira. Famili bizitzari eta, beraz, etxe esparruari eta pribatuaren analisiari atxikitako edukietako askok genero-sistemekin zerikusia dutenez, proposatutako artikulazioa diseinatzeko ponentzia honetan planteatzen den analisiak argitara ateratzen ditu multzoan harturik genero-sistemen zati diren adierazpenen egiturak eta botere-harremanak, nahiz eta adierazpen horiek, itxura batean, inolako loturarik gabeak eta autonomoak diren.

I. Artikulaziorako oinarriak, eragiten dituen aldean arabera

Proposatutako artikulazioaren oinarriak, lehen-lehenik, produkzio / erreprodukzio binomioaren errekonozimendua eskatzen du, aldi berean ikusiz elkarren kontrakotzat eta, horregatik hain juxtu, elkarren baztergarriztat hartu behar diren kategoriak direla, eta banantzen direnean modu negatiboagoan eragiten dietela emakumeei gizonezkoei baino. Are gehiago, Estatuaren interesen gorabeherei lotutako kultur eraikuntzat ikus ditzakegu. Halaz, sistema kapitalistak pribatua (familia), pribatu-publikoa (ekonomia) eta publiko-publikoa (Estatua) isolatzea goraipatzen du, Ongizatearen Estatuak horien guztien arteko lotura aditzera ematen duen bitartean, oro har ikusirik erreprodukzio sozialaren osagaien artekoa bezalaxe (Comas d'Argemir 2000). 1980az geroztik emakumezko antropologo, historialari eta soziologo feminista askok bere analisisien ekarpena egin diote disazioziazioen ulerkuntzari, ikuspegi alternatiboen prestakuntzari (Narotzky 1995:144-47), eta aldi berean binomioko elementu bien jario existentzian eta beronen kontraesan eta egitura-zailtasunetan murgilduta egonik emakumeek esperimendatzen dituzten kontraesan eta zailtasunak argitara ateratzeko eginkizunari.

1. *Gizonezkoen kasuan*

Bereizketa harmonia garbian dago antolamendu sozialarekin, bai lanaren sexu-bereizketan, rol-atxikipenetan eta maskulinitasuna definitzen duten baloreetan duen eraginean. Ondorio negatiboak bakar-bakarrik genero-analisia erabiltzen denean agertzen dira, zeren eta desberdintasunaren arrazoiak azalerazten baititu, bide batez desberdintasun hori noren kalterako den argituz; are gehiago, gizonezkoentzat onuragarriak diren aldaketarako ikuspegiak ere eskaintzen ditu genero-analisiak.

Identitate maskulinoekin lotutako balore eta praktiken definizioak zalutzetik gizonezkoen bizi esperientzian zainketa eginkizunak sartzeko aukeraraino doaz, eta hauek onartzen direnean, gizona leundu egiten da, gozatu, eta oraindik ere gizonezko askok ezagutzen ez dituen emozioen adierazpena ahalbidetzen dute. Oro har botere zapaltzailearen indarra zerbait ahuldu arren, aldaketa estimulatzailea eta askatzailea da, burutzeko zaila ordea kanpoko presio zein estimulurik ezean.

2. Emakumezkoen kasuan

Produkzioaren eta erreprodukzioaren arteko bereizketak, kasu askotan, egiturazko arazoak eta arazo espezifikokoak eragiten ditu; izan ere, emakumezkoa ahalegindu egiten da bizitza sozialaren alderdiak batzen, hain zuzen etxeko eta familiako ardurak lotzen dituztenak esaterako lan-merkatuan, jarduera politikoan edo sindikalean sartzetik datozkion ardurekin. Dagoeneko gehienok onartzen dugu kasu gehienetan ahalegin handia eskatzen duela, ze ardurak, energia eta denbora bikoiztean *jardunaldi bikoitza* sortzen baita. Emakumezko askok egunero-egunero lotu behar dituzte etxe eta famili eginkizun eta antolaketa lanak kanpoan burutzen duten laneko eginkizun eta ardurekin. Desplazamenduak berak ere, Constanza Tobio soziologialariak (1995) adierazi bezala, gizonezkoenak baino etenagoak dira, zeren eta beste pertsona batzuen desplazamenduen mendean egon behar baitute; gizonezkoenak, berriz, soldatapeko lanera bideratuta daude neurri handiago batean.

Bereizketaren egiturazko bizipen ideologikoak eta produkzioaren eta erreprodukzioaren edukiak konbinatu beharraz errealitateak berekin dakar, aldi berean, amatasunaren esanguraren berregite bat. Honen helburua erruduntasun sentimendua ezabatzea da, ze seme-alabei eskaintako denbora birbanatu beharrak sentimendu horixe sortarazten du, zainketaren berezko eginkizun eta ardurak lan-merkatuak dakartzan ardura eta eginkizunekin egokitu beharraz. Aldaketak aldaketa, kultur mandatuak seme-alabenganako ardura handiagoa eta dedikazio eskusiboagoa atxikitzen die emakumeei gizonezkoiei baino. Gauzak horrela, emakumeek zenbait estrategia garatzen dute, esaterako umeekin ematen duten denborari esangura berezia ematen diote, okupazio horren iraupen hutsa baztertuz intentsitate edo bizitasunaren onerako, bizi duten denbora horren ñabardura guztiez blai egin arte. Kulturak amaren abandonutzat hartzen duenari aurre egin behar diote, hau da, amek umeekin igartzeko egokitzat jotako denbora erreala murrizteari, eta denbora murriztago horri esangura berri bat atxiki behar diote (Díez 2000:163,167). Ez dago antzeko denbora atxikipenik aitek seme-alabekin erabil dezaten. Horregatik, amatasun berriaren esanguretan bete-betean sartzten da aitatasuna ez hartzea gauza bakar, amatasunaren osagarritzotzat, baizik eta esperientzia partekatu eta trukagarri batekiko lotura estutzat. Haurdunaldi, erditze eta bularra emateaz gain bide hau aukeratzen denean, umeak sozializatzeko beste eginkizun guztiguztiak truka ditzakete elkarrekin aita eta ama. Gaur egun eginkizun horiek bizi diren

moduan, kokatuta dauden genero-sistematik datozen atxikipenen emaitza dira, eta sistema horretako aldaketak, historian zehar, ekonomi, demografi eta erlijio prozesuetatik eratorriak dira. Denbora luze joango da gizonezkoek aurre egin arte emakumezkoek pairatzen dituzten egoeren gogorrari, are askotan bakarrean egin behar izaten dutela, laneko ardurei aurre egin edo ama rolaren aginduei segitu erabaki beharraz (Díez, ibid.:172); egoera hau zuzen-zuzenean lotzen zaio produkzio / erreproduzioaren ikuspegi dikotomikoari.

II. Zainketaren konplexutasuna eta honek Estatuarekin duen lotura

Aurretik esandako guztia ongi-ongi ulertzeko eta kritika feministak analisi sozialari planteatzen dion ikuspegi berritzailea ikusteko, zainketaren gaia jorratuko dugu, zeren eta hauxe baita produkzioaren eta erreproduzioaren artikulaziorako oztopo nagusietako bat, eta horrenbestez, bizitza sozialaren eta familiarraren arteko harmoniaren eragozpen gogorrenetako bat. Zainketa funtsezko kontzeptu eta praktika da artikulazioaren konplexutasuna ulertzeko, eta zuzenean eragiten du epe labur, ertain eta luzean hobekuntza soziala ekarriko duten aldaketen garapenean. Zainketaren tratamenduak zerikusia du Ongizatearen Estatuaren inplementazio-mailekin eta, beraz, politikak etetetik etortzen diren ondorioekin.

Zainketak bere baitan hartzen duena

Laguntza eta zainketa esatean pertsoneri ongizate fisiko, psikiko eta emozionala ematera bideratutako jarduera multzo bat adierazten da; multzo hau oinarrizko osagaia da generoaren eraikuntza sozialean, eta zuzen-zuzenean eragiten du identitatean eta emakumeek burutzen dituzten jardueretan (Comas d'Argemir 2000: 187-188. orr). Emakumeen hezkuntzako aukerak aldatu dira, lan-merkatuan sartu dira, eta seme-alaba kopurua murriztu da, baina hala eta guztiz ere ez da antzeko aldaketarik gertatu zainketaren ardurari dagokionez. Eta eginkizun honen sustraiak sendo-sendo dauden arren, maila sozialean eginkizun ikusezina da, nagusiki famili esparruan gauzatzen delako, lan kategoria ematea zaila delako, interpretazio naturalizatzaileekin lotzen delako, eta funtsean emakumezkoen lana izaten delako.

Zainketak errepresentatzen duena modu objektiboan hartzeko erresistentziek zailago egiten dute ikustea oso osagai material eta sozial garrantzitsuak dituela. Izan ere, osagai afektibo bat du, zaintzen ditugun pertsonak maite ditugulako, eta eginkizun hauek eduki moral batez hornitzen dira, ahaidetasunaren obligazioen artean sartuz honela. Sarritan naturalizatu eta disponibilitatea azpimarratu egiten da, eta badirudi emakumeen berezko gaitasunak direla hauek guztiak, ikusi beharrean sozializazioaren eta emakumezko eta gizonezkoen eginkizun desberdinak atxikitzen dizkien kultur mandatuaren indarraren emaitza direla. Finkapen hau prozesu naturalizatzailetzat definitzen da. Eginkizun hauek afektuzko testuinguru moraletik kanpo ikusten ditugunean berehala eta erraz hartzen ditugu lantzat, eta lanaren banaketa sozialaren barnean kokatzen ditugu.

Estatuak asistentzia-funtzioak eskaintzeko bete behar duen rola familiaren asistentzi eginkizunarekiko harremanean ikusi behar da. Familia ondasun-produzitzailearen eginkizunak murriztu baziren ere industrializazioarekin eta soldatapeko lanean hastearekin batera, oraindik ere zerbitzu-prestaziorako oinarritzko unitatea dugu familia. Afektuaren indarrez, familiak bere gain hartzen du bizitza osoan zehar mantenamendu eta laguntza beharrak asetzea: “gestazioa, hazkuntza, osasuna, mantenua, arropa, bizitokia, hezkuntza, baloreen transmisioa, zainketa” (Comas d’Argemir Ibid., 191). Alabaina familia ere aldatuz joan da: seme-alaba kopurua murriztu da; bizitza luzatu da; emakumeak lan-merkatuan sartu dira, eta pertsonen autonomia indibidualaren balorea onartu da, baina, hala eta guztiz ere, familiaren asistentzia-eginkizunaren garrantzia azpoimarratzeko joerak bere horretan dirau. Emakumezkoak dira aldaketa honetan murgildurik tradizional jotako obligazioen pisua bere gain hartzen dutenak, esaterako etxeko zerbitzuen antolamendua, sozializazioa, laguntza beharrean dauden pertsonen arta, eta baita hainbat eginkizun berriren pisua ere, besteak beste afektuzko mantenamendua langabezi egoeretan, eskola eta eskolaz kanpoko jardueren jarraipena, gero eta gehiago bizi diren adineko pertsonak zaintzea... Horregatik oso garrantzitsua da planteatzea nolako aldea dagoen familiari atxikitzen zaizkion ardurak areagotzearen eta famili kideei eragiten dieten aldaketen ondorioz sortutako arduren artean.

Jaiotza-tasaren jaitsiera zainketaren eta honek dakarren pisuaren testuinguru orokorraren baitan ikusi behar da.

Jaiotza-tasaren igoera, erreprodukzio geroratu eta honen ondorioak

Emankortasunak beheranzko bidea eten eta emakumeko 1,25 umeko batezbestekora igotzea espero dute. Areagotze honen arrazoia zera da, emakume askok eta askok bere umeak adinean aurrera samar egin arte ez dituztela izaten. 1975ean erditako emakumeen artean, hirutik bat 30 eta 40 urte bitartean zegoen (%33,7); 2010 urterako ia-ia hirutik bi izango dira (%80,9) (EUSTAT: XXXVIII-XL). Garrantzitsua da pentsatzea emakumeek umeak izango dituztela, denbora batez egongo diren lanbideetan halako finkatze profesional bat lortzen ari direnean, esaterako zerbitzu publikoekin lotutako lanbideetan, hala nola irakaskuntza, osasun, udal erakunde, lurralde erakunde eta Eusko Jaurlaritzan, besteak beste. Beste lanbide batzuek, bada, aldaketak, mugikortasuna, ziurgabetasuna, etengabeko prestakuntza behar dituzte. Hortaz, ezinbestekoa da aldaketa sakona gertatzea gizonezkoek famili eta etxeko bizitzari buruz dituzten jarrera eta praktiketan, gipuzkoar gizarteak lortuko badu erreprodukzio erritmoak belaunaldi-ordezkapena ahalbidetzea eta emakumeek produkzioan parte hartzea. Ardura partekatua dugu giltza, demokrazia paritarioak funtzionatzen duen gizarte bat garatzeko.

Genero-sistemak eta biztanleria zahartzea: beharrak, nahiak eta erantzunen plangintza

Biztanleriaren zahartze prozesuak, funtsezko arazoa berau, ondorio desberdinak ekarriko ditu gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, non eta ez den neurri zuzentzaile zenbait gauzatzen. EUSTATen datuen arabera, adineko pertsonen kopuruak gora egingo du bizitzaren luzapenaren bidetik (5 urte gehiago, batez beste, eta %20,7ko kopurua adinekoena, lehen %15,1 ziren bitartean). Proiekzioei segituz gero, gauzak aldatu ezean emakumeei emendatu egingo zaie zainketaren pisua, eta denbora luzeagorako gainera, horixe ikusiko dugu, zeren eta emakumeen bizitza-itxaropena luzeagoa baita (2010ean 93 gizonezko egongo dira 100 emakumeko); datuak emanez, gizonezkoen batez bestekoa 76,5 urtekoa izango da, eta 85,5 urtekoa emakumeena. 2010erako %12koa izango da gizonekiko aldea (XXX, XXXV, XLIII. orr.). Horregatik, etxe asko eta askotan, bakarrik dauden emakumeak izango dira buru.

2010ean 85 urte izango dituzten emakume bakar horietako asko sekula lan egin gabeak izango dira, eta beraz nagusiki alarguntasun pentsioen, kotizatu gabeko pentsioen edota senideek eman diezaieketen laguntzaren beharrean izango dira. Oso egoera kili-

kolokoak gerta daitezke, edota mendekotasun handikoak, eta arazoa aztertu beharra dago, horrelakoei konponbidea ematearren. Bikoteen kasuan, emakumeek bere ezkontideak zainduko dituzte, baina berak gehiago biziko direnez, inork zaindu behar dituenean instituzioak izango dira zaintzaile, non eta ez garen sistema tradizionalera itzultzen, hau da, hurrengo belaunaldiak bere gain hartzea eginkizuna. Bigarren kasu honetan, emakumeak lan-merkatuan sartzean emandako aurrerapenak zailago egingo du erantzun ahal izatea, ze belaunaldi gazteago horietan ez da aldaketarik gertatu semeek eta alabek berdin onartzearren zainketaren ardurak, eta salto hori eman dutenak oso-oso gutxi dira. Horrenbestez, zainketarekin lotutako prestazioetako asko, gaur egun, famili esparrutik kanpo atera behar dira. Baina horrekin batera kultur aldaketak ere behar dira, informazio egokia eskainiz maila guztietan, hedabideak barne hartuz. Gaur egun emakumeak dira famili inguruan egin izan diren zainketak famili ingurutik kanpora eramateak dakartzan erabakiak -esaterako, edineko pertsona bat eguneko zentro batera edo egoitza batera eramatea- eta horrek erruduntasun sentimendua dakarkie, derrigorrezkotzat dituzten eginkizunei erantzuterik ez dutelakoan. Familian asistentzia-eginkizunak partekatzeak eta Estatuak beharrezko laguntza eskaintzeak ahalbidetzen dute zainketaren konpromisoa “aukeraren emaitza izatea, eta ez obligazioarena, pertsonen arteko negoziazio eta inplikazioaren ondorioa izatea, eta ez patu edo zorigaitzarena.” (Comas d’Argemir Ibid.: 203). Erakundeek aztertu egin behar dituzte zein diren berei dagozkien ordezkapen-funtzioak, eta honek berekin dakar funtzio horien lan kategoria aitortzea.

2020an dagoeneko izango ditugu lan-merkatuan izan diren 70 urteko emakumeak, bere pentsioak dituztenak, baina aldi berean baita 2000ko emakumeek zituzten beharren bestelako batzuk dituztenak ere. Bere bizitza-estiloan hainbat faktore izan da itxura emaila, hala nola lan-merkatuan sartu izana, bikote-harremanetan aldaketak ezagutu izana autonomiaz eta identitate definizio askotarikoez, eta balore aldaketa ekarri duten mugimendu feministaren eraginak, eta hauek guztiek bultzaturik emakumeek bere zahartzarora antolatu nahi izango dute, ondorengo belaunaldiei inolako zamarik eragin gabe ordea. Kolektibo honi dituen erretiro-planei buruz galdetu behar zaio, eta nola bizi nahi duen erretiro hori, etorkizunerako proiektzio doituagoak egin ahal izatearren. Horretan lagunduz gero, eredu berriak sortzen lagunduko dugu. Familiak laguntza behar du bere kideen autonomiaren eta mendekotasunaren arteko tentsioa egoki bideratzeko, ze tentsio horrek, aldi berean, gizabanakoaren eta famili taldearen arteko tentsioa

sortzen du, biologikoaren eta sozialaren, pribatuaren eta publikoaren artekoa. Eginkizunen trukagarritasuna bultzatu behar da, eta bide batez hau aurkeztu gizarte antolamenduan oro har duen eraginen testuinguruan, ez gauza indibidualtzat. Familia ikusi beharrean lagundu behar zaion gune bereizi gabe gisa, famili ardurak dituzten pertsonen beharrak identifikatu behar dira, nola bidera daitezkeen ikusteko. Orientazio aldaketa bat da, eta kasu askotan zenbait asistentzia-eginkizun etxetik kanpo ateratzea dakar; eta baita eginkizunak baloratzea ere familiatik kanpo burutzen direnean errepresentatzen dutenaren baremoei jarraiki. Era berean, familia egoitza-gunea baino gehiago dela ere onartu behar da, eta obligazioak eta ahaidetasun-sareak gurekin bizi ez diren pertsonenganaino heltzen direla. Horrexetatik dator, hain zuzen ere, politika publikoek kontuan hartu beharra familiaren kontzeptu zabala, bizirik baitago kontzeptu hau gizarte modernoan eta, beraz, euskal testuinguruan bertan.

Gaur egun elkarbizitzako forma edo moduak aniztu egin dira, eta belaunaldien arteko loturak sendotu. Halaz, elkartruke handia ematen da aiton-amonen eta hurrengo belaunaldiaren artean, biloben zainketa eginkizunak burutzen baitituzte; are gehiago, etxebizitza berean ez egonagatik prestazio hauek mantentzen dira.

Politika kontserbadoreen joera erregresiboa izan ohi da familiaren garrantziaz baliatzea, berau instituzio gisa hartuz, langabezi egoerak arintzeko, osasun-zainketarako, edota laguntza psikiko larrietarako. Beharrak banan bana jorratzea eta asistentziarekin lotutako eginkizunek duten dimentsio publikoaren onarpena zeharo bateragarriak dira. Botere publikoei dagokie familiak betetzen dituen asistentzia-eginkizunak betetzera jotzea, eta premiazkoa da gertatu diren aldaketei aurre egitea, eta bereziki hobekuntza soziala dakarten aldaketein -hezkuntzarako aukera zabalarekin eta emakumeak lan-merkatuan, bizitza politikoan eta bizitza sozial zabalean sartu izanarekin, besteak beste- topo egiten duten eginkizunei.

III. Zazpi proposamen orokor politika publiko zehatzak bideratzeko

Aldaketak planteatzea komeni denez, aldaketa hauek bat etorri beharko dute hartzailen posibleak diren pertsonen sentitutako beharrekin, eta aldi berean proposamen berritzaileak egin beharko dituzte. Ponentzia honetako proposamenen helburuen artean dago hainbat kontraesan ezkutu azaleraztea, aldaketa oztopatzen baitute, esaterako produkzioaren eta erreproduzioaren arteko bereizketa. Halaz azpimarratu egiten da bien arteko lotura: topaleku bat, non jarduera, sinbolo eta esanguren biziagotze bat gertatzen den, hainbat kontraesan edota elkarren kontrako irtenbidez. Era berean, aurrerantzean egiten diren ikerlanen gai izan behar duten arazoak aipatzen dira.

Proposamenak, txostenaren lehen eta bigarren zatian jorratutako kontuetan oinarritzen dira, eta gaur egungo biztanleriaren praktika eta nahiekiko lotura dute, honexek ahalbidetuko baitu aurrerantzean lantzen diren politika publikoak sustraitzea.¹ Proposamenetan halako tentsio bat mantentzen da, bideragarritasun positiboa izan dezakeenaren eta ustekabeko edo kuestionatzaile izan daitekeenaren artean.

Lehenbiziko proposamena erreproduzio lanari entitatea ematea da, halako moduan ezen baremoa finkatu ahal izango baita produkzio lanarekiko harremanean oro har. Pauso honek berekin dakar domestizitatearen berezko jakinduriak objektibatzea, horren edukia eta garrantzia ez daitezen gal ohiko erreferentzietan, hots, maitasun, dedikazio, pasio eta ama-senaren aiputan, hauek guztiek afektura eta obligaziora mugatzen baitute zainketaren etika, aukera libretik kanpo inolaz ere (Comas d'Argemir 2000). Zainketaren objektibazioa burutzen diren lanak errekonozitzea da, eta hurrena lanaren banaketa sexualaren eta merkatuaren berezko kategorien artean kokatzea: janaria prestatzea, laguntza psikikoa, osasun-zainketak, garbiketa, pertsonen garraioa, baliabideen kudeaketa, besteak beste. Ikuzgailua jartzea hogeita minutu da egunean, eta astea igaro orduko bi ordu eta hogeita minutu. Eta gauza bera erosketak egitea, janaria prestatzea, eta adinekoren zein haurren zainketa eta higiene kontuak ere. Esate baterako, zainketa medikuen artean eginkizun zerrenda luze bat dugu, bisitan laguntzetik hasi eta botikak erosi, aldian-aldian errezetak hartu, medikuntzaren administrazio egokiaz arduratu eta errehabilitazio luzeetaraino helduz, ospitalean gau eta egun egiten diren

¹ A posteriori egin beharreko lana litzateke ikustea nolako harremana dagoen proposamenetako batzuen edukiaren eta EMAKUNDEk prestatutako Berdintasuneko Planen artean.

txandez batera; edonola ere, zerrenda honek ez ditu inondik inora biltzen nagusiki familiako emakumeei atxikitzen zaizkien eginkizun guztiak.

Jarduera bati entitatea emateko zehaztu egin behar da, kategoria bat eman behar zaio, eta izena eta balioa merkatu mailan, horixe egiten baita enplegu motak definitzen dituzten jarduerekin egiten dena. Atentzioa ematen du eginkizun hauek guztiak ikusezinak izatea, ez baitira lan-jardueratzat errekonozitzen familiaren baitan egiten direlako. Mugimendu Feministaren baitan bada eztabaida bat etxeko andrearen soldataren kuantifikazioaren eta errebindikazioaren inguruan, eta hainbat mesfidantza ere bai, beldurrez betiere zainketaren balorazio ekonomiko horrek ez ote duen betiko finkatuko eginkizun horiek emakumeei atxikitzea. Ezin arriskua dagoenik ukatu. Alabaina aldaketak prozesu moduan ikusi behar dira, eta epe labur, ertain edota luzean baliagarriak izan daitezkeen estrategiak bereizi. Nire iritziz, erreprodukzio lana barematzean soldatapeko lanean erabiltzen diren irizpideak baliatzea eta beste neurtzaile batzuk ere sartzea oso ona izan daiteke epe luzean.

Gipuzkoan lan hau proposatzeko unean oso gida baliagarria izan daitezke María Ángeles Durán soziologoak etxeko jardueri zein sanitarioei buruz eginiko azterlanak. Hauetatik ondorioztatzen dira emakumeek Estatuari egiten dizkioten ekarpen ekonomikoak, oso ekarpen garrantzitsuak izan arren sekula agertzen ez direnak Barne Produktu Gordinari buruzko analisietan. Andaluzian generoari eta denboraren erabilerari buruz eginiko ikerkuntza ere (Ramos Palomo, Romo Parra, 1998) orientazio ona izan daiteke. Azterlana egin ostean oinarri esanguratsua eduki ahal izango dugu Gipuzkoan politika publikoak finkatzeko unean, bai zuzenekoak izan bai zeharkakoak izan, eta bide batez aldeak eta lehentasunak azpimarratu ahal izango dira instituzioen parte hartzea behar duten jardueren artean. Ponentziaren hasieran ikusi bezala, etxe monomarentalak -persona bakarra, emakumezkoa, dutenak gurasotzat- gero eta gehiago dira. Lehentasuna eman behar zaie kategoria bereizi gisa, eta dituzten behar espezifikoak aztertu behar dira, esaterako etxebizitzaren arloan, ekonomian, edota zainketarako laguntzarenean, lan-harremanen eta zainketari darizkionen artean oreka lortzearen.

Bigarren proposamenak zerikusia du denboraren kontzeptualizazioekin, denbora horretan oinarritzen baita bizitza sozialaren antolamendua oro har. *Ordutegi malguaren*

mitoa zalantzan jartzen du, erreprodukzioari buruz ari garenean, eta laguntza instituzionalen garapenari ekiten dio. Erreprodukzio lanaren eta produkzio lanaren arteko alderaketan berritzaile gertatzen da lehenaren zurruntasuna ikusteak. Del Re-k dioenez (1995) erreprodukzio lana soldatapekoa bezain zurruna izan daiteke, ideologia nagusiak kontrakoa azpimarratzen badu ere, hau da, esan arren tarteka-tarteka egiten den lana dela, emakumeak gustatzen zaionean egiten duela, telenobelek edo telefono-deiek uzten dizkioten tartetean egiten duela. Aitzitik, esperientziak garbi erakusten du badela zurruntasun bat, alde batetik erreproduzitutako subjektuen beharrei dariena, hauek jan eta lo egin behar baitute, eta garbitasun bat izan, existentziarako baldintza atseginez, eta bestetik ordutegi instituzionaletatik datorren zurruntasuna erakusten du. Erreprodukzio-instituzioak etxeko esparrutik kanpo daude: eskolak, osasun-etxeak, ospitaleak, adineko pertsonentzako egoitzak, hainbat tramite egiteko joan behar den administrazio publikoaren zerbitzuak eta abar. Gaur egun zeharo zabaldua dagoen ideia bat hautsi behar da, hain zuzen erreprodukzio lana etxe barruan kokatzen duena, etxeko taldeari loturik, produkzioa etxeko paretetatik kanpo dagoen bitartean. Egun erreprodukzioaren koordinazioaren eginkizun gehienak bere gain hartzen dituzten emakumeak dira instituzioen edota gainetik dituzten enpresen zurruntasuna pairatzen dutenak, eta honez ostean, ideologia nagusiaren ondorioak ere jasaten dituzte, ideologia horren arabera denbora zaluari egin beharreko betekizunak baitira erreprodukzioaren sartzen direnak. Bolonian eta Bartzelonan oso esperientzia positiboak izan dira, hirietako denboraren antolamenduko aldateten inguruan. Genero-ikuspegitik aztertu behar dira famili ardura dituzten pertsonen beharrak, obligazio horien eta lan-merkatutik etortzen zaizkien beste batzuen arteko tentsio-guneak non sortzen diren ikustearren. Kontua ez da eginkizunak banatze hutsa, baizik eta antolatzeko ardura hartzea eta zainketa-lana aurrera ateratzea, askoz gauza konprometituagoa eta konplexuagoa inondik ere. Horregatik hainbat aukera aztertu behar da, hala nola: aitatasun-baimenak bultzatzea, %50 izatera heldu ahal izan daitezen; etxeko lanak, hazkuntzarenak, gizonezko eta emakumezkoen artean banatzeari bultzada ematea, sozializazioaren bidez, hezkuntza formalaz, hedabideez baliatuz, enpresetan diru-pizgarriak jarritz, azkenean %50eko lan-zama izan dezan bakoitzak; haurtzaindegia publikoaren zerbitzua garatzea, hauen ordutegiak bikoteak edo zainketaren famili ardura bere gain hartzen duen pertsonak egiten duen lanaren arabera planteatuz.

Hirugarren proposamenak denboraren antolamenduan sartu behar diren aldaketak jasotzen ditu. Izan ere, erreprodukzioaren eskariek sartuta geratu behar dute administrazioan eta gizarte bizitzan. Oro har emakumeek ardura bikoitzetarako konponbide bila jarduten dute, horretarako denbora zaluaren kontzeptuan oinarritutako eginkizunak bilatzen dituzte hurrena, eta berauek ondoren onartu. Halaz, ordutegiak uztartzeko aukera ematen dieten enpleguak bilatzen dituzte. Printzipioz errazago izaten da laneko ordutegiak ongi mugatuta daudenean, ze ordutegi-zalutasun handiagoa kaltegarri ere gerta daiteke. Gaur egun merkatuaren liberalizazio handiagoak eta enplegua lortzeko lehiakortasunak nabarmenago egin dute denboraren malgutzeko hori. Zubi gisako epe honetan, emakumezkoen zein gizonezkoen artean produkzio eta erreprodukzio lanen elkar trukatzeko progresioa gertatzen ari delarik, hobe da laneko denbora zurrunagoa izatea, zeren eta ongi egituraturako eskema honen barruan koka baitaitezke, ondoen, bete beharreko eginkizunak. Zurruntasunak, baztertzeko batera, ahalbidetzen digu aurrez jakitea denboraren antolamendu zehatzaren nondik norakoa, eta elkar trukatzeko bidea ere errazago egiten du. Alabaina joera berriek sendotu egiten dute enpresa librearen bidea, oportunitatea kudeaketaren ardatz gisa, ekonomia mundu mailakoa izatea, aurrerapenak inolako hesirik ez duen mitoa, eta ildo hau jorratuz gero lanek gero eta zalutasun handiagoa eskatuko dute ordutegiei dagokienez, pertsonaren disponibilitate handiagorekin batera, enpresa-helburuen denbora eta tokien arabera betiere. Erreprodukzioari darizkion beharrak, hala etxe esparrukoak nola honetatik kanpokoak, ez dira norbanakoaren zein kolektiboaren aurrerapenari loturik aztertzen. Lanak dira batzuetan, maila-igoerak beste batzuetan etxez aldatzea eskatzen dutenak, egun-txandak antolatzea edo ordutegi zatituak moldatzea eskatzen dutenak, eta erreprodukzioaren ardura emakumeen eskutan geratuko delarik moldatu behar horixe izango da berauen garapenerako eta lan, politika eta gizarte integrazioarako eustormak. Ezinezkoa da ordutegien zurruntasuna edota zalutasuna onartzea maila abstraktuan, baizik eta gizarte testuinguruari loturik, non berdintasunezko partaidetzarako irizpideek zerikusitatu estu-estua duten eginkizunen elkar trukatzearekin eta, beraz, hiriaren antolamendu dikotomikoa gainditzearekin.

Laugarren proposamenak lan-merkatuan sartzeko eskubidea definitzen du, ze gizonezkoentzat inoiz zalantzan jarri ez den kontua izanik, emakume asko eta askorentzat laneratzea prozesu motela izan da, eta bada oraindik ere. Alabaina lanak identitatea sortzen du, eta norbaiti aukera hori galaraztea bere identitate sozialaren

funtsezko elementuak ukatzea da. Gazteen kolektiboarekin batera emakumeak dira ezaugarri bereizienak dituztenak, eta horrexegatik nabarmenarazi nahi ditut. Laneratzeko eskubidea aitortzea oso estu lotzen zaio emakumeen eta gizonezkoen artean eginkizunak trukatzeko aukerari, eta instituzio publikoek zainketa-eginkizunak bere gain hartzeari. Argi baldin badaude energi inbertsioa, eginkizunak, denborak, espazioak, jakinduriak, garapen emozionala eta metatutako eskarmentua neurtzeko baremoak, norabide horretan aurrera egingo dugu modu egokian.

Emakumeei laneratu ondoren heltzen zaien autonomia ekonomikoa funtsezkoa da berdintasunezko harremanak finkatzeko. Estatistikek erakusten duten bezala, autonomia ekonomikoak oso eragin positiboa du kasu arazotsuen konponbidean, behar delarik bereiztea, edo dibortziatea, edota tratu txarrezko egoera bati amaiera ematea. Emakumeak gizonak baino denbora luzeagoan bizi izateak ezinbestez eskatzen du haiek bere pentsioa izatea. Izan ere, alarguntasun-pentsioak dituztenak sarritan oso egoera prekarioetan izaten dira, senar edo bikotekide izandakoaren pentsioaren %51 besterik ez dute eta jasotzen. Bere denbora zainketaren zuzeneko eta zeharkako arduetara bideratu duten emakumeek adinean aurrera egin samarturik sartzen direnean lehen aldiz lan-merkatuan, eta soldatapeko lanera itzultzen direnek edota berau utzi eta urte batzuetara itzultzen direnek, behar espezifikoak izaten dituzte. Alde batetik etxeko esparrutik lan-merkaturako pausoa eman behar dute, eta honek lanbide bat izatea edo ikastea eskatzen die, edota egunean jartzea behintzat, enplegua bilatzeko unean behar diren informazioarekin eta abildadeekin batera. Hemen elkarteek oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute, zubiak baitira kasu batzuetan, eta ezagutza hartzeko eta eguneratzeko guneak beste batzuetan. Politika garrantzitsua izango litzateke emakumeei lan-merkatuan sartzeko prestakuntza eskaintzen dieten elkarteei laguntza ematea, INEMek eskaintzen duen enplegurako ikastaro-eskaintza eta informazioa emakumeek optimiza dezaten zubi gisa dihardutenei laguntzea. Nik dakidanaren arabera, Bizkaiko Bagabiltza elkartearen eredu ona da, eta interesgarria izango litzateke emakumeen prestakuntza eta laneratzeko arloan garatzen duen orientazio espezifikoaren aztertzeari.

Bosgarren proposamena emakumeen eta gizonezkoen nortasun pluralen errekonozimendura bideratuta dago. Ugaltzea maila sozialean emakumeekin lotzen den gauza bat bada ere, gero eta zabalagoa da ugaltzearen aukera edota berau bizitzeko moduen esparrua zein beste aukera batzuen edukia. Adopzioaren ondoriozko gizarte

amatasuna izan daiteke, banaketa, dibortzio edo heriotza baten ondoren berregituratutako talde domestikoa, edota teknologia berriei esker hainbat emakumek modu autonomoan, hots, aitaren figuraren errekonozimendu sozialik gabe, bizi duten amatasuna ere.

Denbora askoan zehar emakumeei buruzko definiziorako amatasunarekiko lotura erabiltzen zen, lotura hori onartzen zuten edo uko egiten zioten alegia, baina gaur egun nortasun eta identitate konplexuagoak ageri dira; identitate hauetan ezkongabetasuna, aldi baterako harremanak edota egonkorrak -hala gizonezkoekikoak nola emakumezkoekikoak-, definizio positibotzat ageri zaizkigu jada, nahiz eta oraindik oso modu minoritarioan izan, bitzta proiektuen kontzepzioan. Ahultzen ari da kultur mandatu bat, hain zuzen ezkontza definitzen zuena emakumeen estatusa aldatzeko aukera nagusitzat, eta aldi berean aldaketa eta enplegua agertzen ari dira, autonomia eta estatusa zabal garatzen ari direla erakusten duten hainbat adierazlerekin (del Valle, Apaolaza, Arbe, Cuco, Díez, Esteban, Etxeberria, Maquieira 2002).

Aldaketa-joera bat dugu familia monomarental seme-alabadunen kopurua areagotzea; hauen beharrak eta bi pertsona helduk osatutako familienak ez dira berdinak.² Familia horietako batzuk banaketa edo dibortzioen ondorioz sortuak dira. Justiziak guraso-agintea amari eta aitari ematen badie ere, zaintza bakar-bakarrik familiaren etxean geratzen denari eman ohi dio. Oraindik oso-oso gutxi dira aitari ematen dion kasuak, eta honen arrazoa zera da, emakumeek zaintze lanetan duten protagonismoa batetik, eta eginkizun horretarako gaituagoak daudela uste izatera garamatzen ideologia bestetik. Aldaketa heltzen ari da ordea, gizonezkoak elkarteak sortzen ari baitira, seme-alaben zaintza eskatzeko, eta gero eta gauza komunagoa izango da, zainketa eginkizunetan ardura partekatzen den neurrian. Banaketa eta dibortzio kasuetan egiten diren akordio ekonomikoen betetzea arreta handiz aztertu beharreko kontu bat da. Askoz maizago gertatzen da senar ohi edo gizonezko bikotekide ohi batek seme-alaben zaintzagatik ordaintzea dagokiona ez ordaintzea, emakumeak -senar edo bikotekidearen ahalmen ekonomikoak gaindituz- gehiegizko kopuruak eskatzea baino, edota emakumeak berak (zaintza aitari emandako kasu apur horietakoren batean ordaintzea dagokionean)

² Espainiar estatuan eginiko familiari buruzko analisi orokorrek erakusten dutenez, heldu bat buru duten 265.500 talde domestikoen kasuan ia-ia hamarretik bederatzitan emakume bat da buru (%87,8). Hauetatik erdia baino gehiago bananduta edo dibortziatuta daude. (Nogueira 2001:26).

ordainketarik ez egitea baino Normalean ez ordaintzeak ez du inolako loturarik izaten berankorraren ahalmen ekonomikoarekin, ze profesional liberalen artean aita banandu edo dibortziatuetatik %80k ez du seme-alaben pentsioa ordaintzen, Emakume Banandu eta Dibortziatuen Elkartearen presidentek aditzera emandakoaren arabera (N, C. 2001:27). Era berean, ezkontide bien abiapuntu ekonomikoa ere kontuan izatea komeni da. Gauza bat da bere lanaren ondorioz autonomia ekonomikoa duen emakumearen kasua, eta oso bestelakoa bere denbora osoa zaintze lanetan eman duenarena, ezen, lehen ikusi bezala, horrelakoek ez dute inolako diru-ordainik. Izan ere, pobrezia egoerak gehiagotan gertatzen dira emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, eta haien artean ere, famili buru direnen artean gehiago. Bada proposamen bat abusurik ez izateko, eta merezi du fondo publiko baten sorreraren alde agertzea; fondo honek ordainduko lituzke aita zein ama berankorrek ordaindu gabeko pentsioak, eta gero erreklamatu egingo lizkieke.

Pauso berritzailea zera dugu, amatasuna eta emakumeak pertsona sozial gisa errealizatzeko beste modu batzuk elkarrekin bizi izatea. Egungo joera identitate pluralagoetarantz doa, eta horiei arreta handiagoa eskaini behar zaie, bide batez lagunduz planteatzen dituzten behar berrietan. Sendo segitu behar dugu naturalizazioa inspiratzen duten sinesmenek, era berean hainbat kultur mandaturen oinarria direnek, sinesgarritasun eta indarra galtzen jarraitzeko prozesuan aurrera. Horregatik zenbait jarduera sendotu behar dugu, emakumeak famili ardurez aparte agente sozial gisa ageri diren definizioak indartu. Aldi berean, lehentasunezkoa da kolektibo minoritarioei laguntza instituzionala ematea, esaterako homosexual eta lesbianeiei, eta horretarako garrantzitsua da horien ordezkari diren elkarteekin harremana izatea, nolako eskariak egiten dituzten ezagutzeko eta hauek lege eta politika publiko eraginkorretan oinarrituz bideratu ahal izateko. Sexu-identitaterako eskubideak sozializazioa liberalizatzea eskatzen du. Liberalizazio hau heziketa prozesuei lotuta dago, eta baita hedabideetan tratamendu egokia emateari ere, zeren eta hauek zuzen-zuzenean eragiten baitute iritzi sozialetan eta famili multzoaren baitan jarrera irekiak garatzeko prozesuan.

Seigarren proposamenak 55-85 urte bitarteko kolektibo zibilen garapenari laguntzeko neurriak jasotzen ditu. Bizitzaren iraupena luzatzen ari delarik, biztanleriaren multzo batzuek ezaugarri bereziak dituzte: bada sektore bat, gehienbat gizonezkoek eta emakume gutxi batzuek osatua, garaia baino lehen erretiroa hartu dutenena; gizonez eta

emakumez osatutako beste bat, 65 urtez erretiroa hartutakoena eta unibertsitateko irakasleena, hauek 70 urte dituztenean erretiratzeko badira ere; eta beste bat beren bizitza osoa famili ardurei eskaini dieten emakumeena, lan egiteari uzteko inolako adin-mugarik gabe.

Adineko pertsonen kolektiboaren beharrei erantzutea instituzioen presazko eginkizun bat da. Adinekoen egoeraren arlo guztiak izan behar dira oinarritzat, hala nola osasuna, baliabide ekonomikoak, etxebizitza, aisialdia, prestakuntza, etab. Gai hau dagoeneko aipatu dugu biztanleriaren zahartze prozesuari buruzko atalean, eta azterketa eta ebaluaziorako atal propioa behar du. Horregatik, ponentzia honetan adineko pertsonen kolektiboaren aberastasun soziala baloratzera joko dut. Ikuspegi honetatik begi-bistakoa da oraindik aktiboa den pertsona-multzo erretiratu bat izango dugula, eta multzo hau gai da gizarteari ekarpen esanguratsuak egiteko. Egungo gizarteak teknologia eta etorkizuneko proiektzioa baloratu arren, gero eta behar eta interes *ezkutu* handiagoa du iraganeko alderdiak berreskuratzeko, pertsonak, taldeak, kolektibitateak positiboan finkatzeko balio dezaketelako; izan ere, horrelakoak oso beharrezkoak dira orainaren eta berehalako etorkizunaren ezaugarri ditugun aldaketa eta mugikortasun uneetan. Sarritan arbuia egiten dugu iragan hori, adineko pertsonak ez dutelako erakusten gazte jendeak iraganaren eta orainaren artean behar izaten duen katebegia jartzeko borondate handirik. Ildo honetatik, adin desberdinen arteko harremana bultzatu behar da, ezaguera aniztasun hori, adinekoek eskaintzen duten jakinduria hori orainean txertaturik gera dadin.

Batzuetan mintzaira gaurkotua garatu behar izaten da, edukiak artikulatu eta gaur-gaurko moduan aditzera emateko. Esploratu behar diren esparruen aukerak zabalak eta askotarikoak dira, esaterako: tradizioak, ahozko historia, jaiak, musika, dantzak, jokoak, eskulangintzako lanbideak, eskulanak, herri arkitektura; antolamenduko estrategia domestikoak, komentsalitatea, jakien prestakuntza eta kontserba; medikuntza naturala, tokian tokiko landaretza eta fauna ezagutzea, ...

Beste batzuetan antolaketa bultzatu behar da, asoziazionismoaren bidez: emakumeentzat, gizonentzat, talde mistoentzat eta herri ekimenentzat, txikiak direla iruditu arren. Gaur egun berpizten ari da, indarra hartzen ari da gizarte zibilak duen garrantzia, eta ikusten ari gara gizarte zibil horren jarduerara, alderdi politikoei betetzerik ez duten hainbat hutsune betetzeaz gain, aldaketarako eragile bat dela, alderdien

aurrean eragin dezakeen errebindikazio eta sorkuntza tentsioaren bidez. Boluntariotzak jasotzen duen laguntza, adin guztietako jendearengandik eskuratzen duena, nahikoa garrantzitsua da. Espero dezagun astia baduen adineko pertsonen kolektibo honek, aktibitatea duen bakoitzean, programa-bultzatzaile gisa jardutea, eta ez bakarrik kolektiboarentzat berarentzat, baizik eta baita beste talde batzuentzat ere. Kolektiboaren ikuspegi desberdinak planteatu behar dira, dituen beharrak eta dituen gaitasunak bereizteko moduan. Gaur egun, kolektibo honen irudi sozialean gehiago ikusten dugu duen zaintza beharra, eta inondik inora ez klub eta elkarten bidez egiten dituen ekarpenak, eta laguntza faltagatik eta ekimenak bideratzeko posibilitate ezagatik aurrera ateratzen ez direnen arrastorik ere ez dugu.

Zazpigarren proposamena joera, balore eta kuestionamenduen premia sumatzera bideratuta dago. Iraganaren eta orainaren arteko jariorasuna baloratzen duen gizarteak aldaketaren kimuak arretaz aztertzen baditu, gizarte irekia dela esan dezakegu. Premia horiek argi izatea ahalbidetzen digu garaiei aurrea hartzea, hots, aurrenekoak izatea beharrei erantzunak emateko unean, behar hauek ez daitezen inoiz ustekabe hel. Horretarako, ereduaren premiatasuna aztertu duen egungo lan batetik jaso ditut balore berrien ezaugarri batzuk, etorkizuneko kronologiak markatutako epe labur eta ertainean hainbat hausnarketarako aukera ematen baitute. *“Gipuzkoa hacia el 2020”* da azterlan hori.³ Oso metodologia kualitatiboak aplikatuz ateratako ezaugarriak dira. Analisiaren oinarrian gizon eta emakumeengandik ateratako datuak daude, eta adin-multzo desberdinak hartu dira, hala nola edadekoak, helduak eta gazteak, gizarte-klase desberdinak ukituz eta ideologia kontserbadoreak zein progresistakoak bilduz.

Maskulinoaren eta femeninoaren definizioetan eta bereziki emakumeek agertu dituzten nahi berrien adierazpenean emandako aldaketen ondorioz indarra hartzen ari diren baloreekin zerikusia duen esparrua oso interes handikoa da. Balore sorta hau zabala da, eta tratu eta hurbiltze pertsonalari enpresa-baliozat ematen zaion garrantzitik elkartasuna adin guztietako jendearengan dagoen bizitza-jarreratzat hartzeraino ailegatzen da.

³ Del Valle, T. T. Apaolaza, F. Arbe, J. Cucó, C. Diez, M.L. Esteban, F. Etxeberria eta V. Maquieira. *Modelos emergentes y relaciones de género*. (Prentsan). Madril: Narcea, 2002.

Pertsona gazte eta helduek harreman pertsonalizatuei gero eta garrantzi handiagoa ematen diete, maila guztietan. Harreman hauek familiaren baitan eta adiskidetasuneko harremanetan azpimarratu ohi ziren. Gaur egun, lehen horrelako harremanik ez zegoen testuinguruetan aplikatzeko pausoa eman da, esaterako hezkuntzaren munduan, lanarenean edota politikan. Are berritzaileagoa gertatzen da boterean aplikatzea, ze honetan beti harremanen gogortasuna azpimarratu da, antolamendu instituzionalaren, jarduera politikoaren eta enpresaren maila guztietan gizonezkoek izan duten pisuagatik; horregatik, ohiko tratuan emozioak ezkutatzea faktore negatibotzat hartzen da. Balore hauek askoz indartsuago ageri dira belaunaldi gaztearengan. Edadeko pertsonen eta helduen belaunaldietan harreman mota hori ekarpen berritzailea da enpresa munduarekin eta boterearekin lotzen denean.

Hasieran ingurugiroaren inguruko kezka bat ageri da, maila globaleko mugak ikustetik abiatuta, eta gerarazi ezean garapen basatiak bizi-baldintzen hondatze orokorra eragin dezakeela ulerturik. Hemen ikusten ditugun baloreek maila lokala gainditzen dute, eta elkartasun globala dakarren ikuspegi berri batean koka daitezke.

Arazo globalizatzailea gero eta indartsuago ageri den neurrian, maila guztietan ikuspegi zabal batez gidatutako lan-moduak garatzearen garrantzia ere ageri zaigu, ongi ikustearren globalak nola eragiten dien egoera eta ekintza zehatzei. Honen muturrean neoliberalismoaren eta globalizazioaren ondorio negatiboen arteko harremana egongo litzateke. Horregatik baloratzen ditugu halako ikuspen kolektibo bat eta izaera negoziatzailea duten pertsonak. Gizonezkoak dagoeneko hasi dira emakumezkoek eskaintzen duten izaera negoziatzailea ekarpen sozialtzat baloratzen. Honek balore berriak sartzea dakar berekin. Balore berri hauek trebetasun sozialak dira, eta hauen bidez emakumezkoek halako enpatia-maila bat erakusten dute kideekiko, beheragoko mailakoekiko, harreman pertsonalizatuaren ildoan jorratuz. Ekintza zuzeneko forma bat da, zeinean doi-doi gaiari heltzen zaion, bueltaka ibili beharrean arazoa konpontzerik ez dagoenean. Baina berritzailea ez da gauza hauek emakumezkoen gaitasun positibotzat ikustea, baizik eta gaitasun positibotzat ikustea ardurak betetzeko eginkizunean eta boterea erabiltzean oro har, generoen artean trukagarriak izanik alegia eginkizunok.

Talde-lana konfiantza giroa sortzen laguntzen duen baloretzat ageri da, eta giro horretan pertsonen ekarpenak baliatuz ikuspegi sortzaileago eta integratzaileagoak izateko aukera

pizten da. Balore hau pertsona heldu eta gazteen iritzi eta bizipenetan dago, hala emakumezkoengan nola ezkerreko ideologia duten gizonezkoengan, are nabarmenago inondik ere emakumeen artean⁴.

Gauza bera esan daiteke erreproduzioaren eta sexualitatearen arteko bereizketaz, berekin baitakar plazera gauza zilegi eta, are gehiago, onuragarritzat onartzea, bide batez erlijioak sexu-praktiken kontrolean duen arau-indarraren ahultzea eraginez. Horregatik interesgarria da familian helduen eta gazteen arteko komunikazioa, halako moduan ezen ez baitu adiskideekin esperimentatzen dutenetik bananduta egon behar. Zubiak eraiki behar dira gazte jendearen beharren eta bizipen pertsonalen artean, familietan bertan informazioa izanik eta belaunaldien arteko komunikazioaz, osasun-informazioa erraztuz, eta antisorgailuetara, hurrengo eguneko pilulara edota abortura jotzeko aukera errealaz. Nerabeen artean, bai nesken bai mutilen artean, atentzioa ematen du zenbat nahigabeko haurdunaldi gertatzen den, baina nagusiki neskak izaten dira egoera hori pairatzen dutenak, zailtasuna besterik ez baitute topatzen pertsona helduak tartean izateke zuzenean informazioa eta osasun-laguntza eskuratu behar dutelarik.

Aipatutako azterlanean ageri den beste balore bat dugu gaur egun berdinen taldea izatea guztiok gehien estimatutako sozializazio-modua. Emakumeek etxeko espazioa eta eginkizunen martxa hausten duen jarduera-sorta bat aurrera ateratzeko baliatzen dute talde hori, lehen espazio eta martxa horixe zirelarik bere bizitzaren defintzaileak. Talde hauen oinarrian, eraketan eta izatean dauden emozio eta sentimenduak jendaurrean ageri dira, eta aukera sozializatzailetzat hartuz baloratzen dira. Emakumeen kasuan, esanekotasuna, ahultasuna eta mendekotasuna arbuiaitzeko prozesuak errazten dituzte, aurrerago autoestimuaeren areagotze bat izanik ondorio.

Emozioak kontsideratzean, adiskidetasunezko harremanen pisua, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko adiskidetasunaren jarioetasuna txikiagoa da, gizonen edo emakumeen artean ematen denean baino. Emakumeek beren emakumezko adiskideez egiten duten balorazioak sekulako indarra du. Emakumeen kasuan, elkarteren bateko kide izatearen balorazioak haustura bat ekartzen du, hain zuzen kultur mandatuetatik

⁴ Ibid. Azterlanean iradokizun sorta bat jasotzen da, inplementazio politiketarako. Interesgarria izango litzateke kontsulta iturri osagarri gisa.

heldutako iritzi bat hausten du, mandatu horiek elkarren kontrakotzat aurkezten baitzituzten emakumeak, beti beste harreman batzuek kezkatu berek hasi eta jorratzen zituzten harremanez baino gehiago.

Azkenik, aldaketa perspektiba esanguratsu bat dugu besteak beste independentzia, elkartasuna eta ezberdintasunarekiko errespetuaren balorea agertzea, genero-markarik ez baitute. Ezaugarri hauek genero-dikotomia gainditzen dute, eta produkzio / erreprodukzio binomioaren dikotomia zabalagoaren oinarrian daude.

BIBLIOGRAFIA

Comas d'Argemir, Dolors “Mujeres, familia y estado del bienestar”. Non: del Valle, Teresa (Editorea) *Perspectivas feministas desde la Antropología Social*. Bartzelona: Ariel, 2000, 187-204. orr.

Del Re, Alisa (1995) “Tiempo del trabajo asalariado y tiempo del trabajo de reproducción”, *Política y Sociedad*, 19:75-81. orr.

del Valle, Teresa, Txemi Apaolaza, Francisca Arbe, Josepa Cucó, Carmen Díez, Mari Luz. Esteban, Feli Etxeberria eta Virginia Maquieira
2002 *Modelos emergentes y relaciones de género*. (Non: prentsan. Madril: Narcea.

del Valle, Teresa (Editorea)
2000 *Perspectivas feministas desde la Antropología Social*. Bartzelona: Ariel.

del Valle, Teresa
1997 *Andamios para una nueva ciudad*. Lecturas desde la antropología. Madril: Cátedra argitaletxea.

del Valle, Teresa
1998 “La organización del tiempo y del espacio: Análisis feminista de la ciudad”.
Hainbat egile. *Las mujeres en el ámbito urbano. Salud y calidad de vida*. Bilbo: OP (Osasun publikoaren aldeko elkarte/Asociación para la defensa de la salud pública. 113-118. orr.

Díez, Carmen “Maternidad y orden social. Vivencias del cambio”. Non: del Valle, Teresa (Editorea) *Perspectivas feministas desde la Antropología Social*. Bartzelona: Ariel, 2000, 155-185. orr.

Durán, María Ángeles
1998 *De puertas adentro*. Serie Estudios Nº 12. Madril: Emakumearen Institutua.

1995 “Invitación al análisis sociológico de la contabilidad nacional”, *Política y Sociedad*, 19, Madril, 83-99. orr.

EUSTAT
Emaitzen Analisia/ Análisis de resultados.

IKEI/ PROSPEKTIKER
2001 *Proceso de Reflexión Estratégica Gipuzkoa 2020 (PREG 2020). Informe final (Ref. E1828)*.

Narotzky, Susana
1995 *Mujer, mujeres, género. Una aproximación crítica al estudio de las mujeres en las Ciencias Sociales*. Madril: Zientzi Ikerkuntzen Kontseilu Nagusia.

Nogueira, Charo

2001 “El nuevo perfil de la familia española”. *El País*, igandea 6-17, 26-27. orr.

N., Ch.

2001 “Las separaciones y los divorcios han aumentado el 66% en los últimos diez años”. *El País*, igandea 6-17, 26-27. orr.

Pacha, Eugenia eta M^a Angeles Durán

1995 “Demandas urgentes de tiempo y asistencia sanitaria”, *Política y Sociedad*, 19, 101-116. orr.

Ramos Palomo, M^a Dolores, Carmen Romo Parra et. al.

1998 *La medida del mundo. Género y usos del tiempo en Andalucía*. Sevilla, Malaga: Andaluziako Emakumearen Institutua.

Tobío, Constanza

1995 “Movilidad y género en el espacio urbano”. Non: Constanza Tobío eta Concha Denche (Ed.) *El espacio según el género ¿un uso diferencial?* Madril: Madrilgo Komunitatea, Emakumearen Zuzendaritza Nagusia, 55-72. orr.